



DEBAko UDALA

2017SPLE0002
2. BILERA: OHIKOA 2017-02-23

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: bigarrena

Eguna: 2017/02/23

Hasiera-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 20:35

Onarpen-eguna: 2016/03/30

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M^a LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

UNAI LEKUBE ARANBERRI

Bertaratzeak eta irteerak

Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/01/26).
2. Debako hondartzako “Ondargain” taberna-kafetegia ustiatzeko administrazio kontratu berezia esleitzea. Espedientea, urjentziak izapidetza, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta plegu teknikoak onartzea. Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea eta kontratazio mahaia izendatzea.
3. Debako Udalaren eta Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren artean kontratu-programa sinatzeko proposamena, “mendetasun egoerek eragindako beharrezanean aurre hartu eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko”.
4. Debako Udala eta Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mutriku eta Mendaroko Udalen arteko hitzarmena. Gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen zerbitzua emateko eskualde mailan dagoen etxebizitza tutelatuan lanak egiteko eta ordaintzeko.
5. Bideen inbentarioa 2. fasea. Behin betiko onartzeko proposamena.
6. Osio guneko plangintzaren inguruko mozioa. Debako EHBilduk aurkeztua.
7. Martxoaren 8^a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Adierazpen instituzionala.
8. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
9. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/01/26)

2017ko urtarrilaren 26ko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla.

2.- Debako hondartzako “Ondargain” taberna-kafetegia ustiatzeko administrazio kontratu berezia esleitzea. Espedientea, urjentziazko izapidetza, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta plegu teknikoak onartzea. Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea eta kontratazio mahaia izendatzea.

Zinegotziek esku artean dutena Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren batzorde informatzailearen proposamena da.

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du ondoko erabakia, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla, horretarako aintzat hartu du Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren batzorde informatzailearen proposamena.

Lehenengo.- Debako hondartzako “Ondargain” taberna-kafetegia ustiatzeko administrazio kontratu berezia lehiaketa ireki bidez esleitzeko espedientea eta kanona onartzea.

Bigarren.- Urjentziazko izapidetza onartzea.

Hirugarren.- Kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoen orria onartzea.

Laugarren.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

Bosgarren.- Kontratazio mahaia izendatzea.



DEBAko UDALA

3.-Debako Udalaren eta Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren artean kontratu-programa sinatzeko proposamena, “mendetasun egoerek eragindako beharrizanei aurre hartu eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko”.

Zinegotziek esku artean dutena Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasuna batzorde informatzailearen proposamena da.

Erabakia.

Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasuna batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla:

Lehenengo.- Debako Udalaren eta Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren arteko kontratu-programa sinatzea, “mendetasun egoerek eragindako beharrizanei aurre hartu eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko”.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea kontratu-programa sinatzeko.

4. Debako Udala eta Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mutriku eta Mendaroko Udalen arteko hitzarmena. Gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen zerbitzua emateko eskualde mailan dagoen etxebizitza tutelatuan lanak egiteko eta ordaintzeko.

Zinegotziek esku artean dutena Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasuna batzorde informatzailearen proposamena da.

Iritziak eta galde erantzunak

Marilu Albizu zinegotziak azaldu du, 2016ko urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzako zerbitzuen zorroa onartu zela eta hor finkatzen zirela eskualde mailan eman beharreko zerbitzuak. Dena den, zerbitzu hauek emateko zein formula juridiko erabili behar den ez dago argi eta sarritan polemika sortzen dute zerbitzu hauen kokalekua herritarren artean. Horren ildotik, Soraluzeko Udalak etxebizitza tutelatu bat eskaini du eta horren egokitzapen lanen ordainketa hitzarmena sinatzen duten Udalen artean ordainduko da, bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera.



DEBAko UDALA

Erabakia.

Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasuna batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla:

Lehenengo.- Debako Udala eta Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mutriku eta Mendaroko Udalen arteko hitzarmena sinatzea, *gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen zerbitzua emateko eskualde mailan dagoen etxebizitza tutelatuan lanak egiteko eta ordaintzeko.*

Bigarrena.- 5.517,89€ euroko gastua baimentzea eta ordaintzea Soraluzeko Udalak obra ziurtagiriak eta gastua egin izanaren agiriak aurkezten ditutenean.

Hirugarrena.- Alkateari ahalmena ematea Udalaren izenean hitzarmena sinatzeko.

5.- Bideen inbentarioa 2. fasea. Behin betiko onartzeko proposamena.

Zinegotziek esku artean dutena Hirigintza eta Etxebizitza batzorde informatzailearen proposamena da.

Aurrekariak

Jadanik, Debako landa bide zolatuei buruzko ondasunen inbentarioa eginda eta onartuta dago.

Bigarren mailako bideen inbentarioa onartzeko jardunbideari hasiera eman zitzaion eta jendaurrean hiru hilabetez jartzeko erabakia hartu zen 2016ko urtarrilaren 28ko Udalbatzarraren bileran. Horiek horrela, 2016ko otsailaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen irakarkia eta Udaleko iragarki oholean eta Web orrialdean eskegi zen.

Emandako epean hainbat alegazio aurkeztu ziren. Horiei erantzuna emateko Sendo S.L. enpresak erantzun teknikoak prestatu zituen. (1. Eranskina)

2017ko urtarrilaren 31n egindako Hirigintza eta Etxebizitza batzordean gaia landu zen eta proposamena egin zen.

2017ko urtarrilaren 12ko Itziarko Toki Entitate Txikiaren Auzo-Batzarraren bileran alegazioen erantzun teknikoak berri eman zen eta 2017ko otsailaren 22ko saioan onespena eman zitzaion bideen inbentarioaren 2. faseari.

Jardunbide administratiboari dagokionez, alegazioei erantzuna eman behar zaie eta Udalbatzarrak behin betiko onespena eman behar du.



DEBAko UDALA

Erabakia.

Hirigintza eta Etxebizitza batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla:

Lehenengo.- Bideen inbentarioaren 2. faseari behin betiko onespena ematea eta alegazioei erantzuna ematea Sendo S.L. enpresak emandako erantzun teknikoen txostenean jasotako arrazoietan oinarrituta:

1.- Sarrera 362. Camino de Goikola 029050BN.

Se estima esta alegación eliminando dicho camino del inventario.

2.-Sarrera: 387. Usarraga – Intxusburu bidea 029017BMB.

Alegazioa onartzen da eta bide publikoen inbentarioan bidearen trazaketa aldatzen da hau dena kontuan hartuta.

3.-Sarrera: 423. Camping Itsaspe - Carretera GI-3291.

Esta alegación, que hace referencia a la carretera GI-3291, ya quedó respondida en la primera fase de este trabajo (ver documentación propia) en la que ya quedó claro el carácter público del camino sin ningún tipo de afección ni al parking del camping ni siquiera a los márgenes de la carretera que en cualquier caso se somete a la Norma Foral de Carreteras y Caminos de la Diputación.

4.-Sarrera: 432. - Albizuri aintzinako bidea 029054BMB bidea.

Bere izapide publikoa berresten dugu nahiz eta kontserbazio egoera txarra duen.

5.- Sarrera: 497. -

-029002BMB – Kanalako bidea

Se trata de un canal de agua para suministro de un salto eléctrico. Lo que ocurre es que este servicio quedó amortizado y hemos considerado que el ANDEN DE MANTENIMIENTO del canal podemos considerarlo un camino ya que cumplía tal función para acceder a cualquier punto de su trayecto. Hoy en día es indudable su interés para el uso general como sendero y su valor para la práctica del senderismo. No vemos pues contradicción en incluir este “Camino” al efecto mencionado. De momento y sin perjuicio de algún **recurso** en tal sentido optamos por mantener inventariado el que está reflejado en el plano por su presunción al encontrarse “Abierto al Uso Público”.

-029009BMB – Inmediaciones del caserío Iparragirre.

Es probable que haya sufrido modificaciones provocadas por los usos agropecuarios del entorno, pero mientras no veamos que se consolida otro trazado de forma pacífica, éste que nosotros reflejamos en el plano es el camino público y como tal deberá estar expedito para su uso común.



DEBAko UDALA

-029019BMB – Viejo camino entre los caseríos Itsusburu y Mendata.

El Ayuntamiento podría gestionar obtener el uso público de la pista de servicio al tren con sus propietarios. Pero esto no es más que una sugerencia.

-029020BMB - Consideramos en esa zona la existencia del Sendero homologado consolidado desde la depuradora al entronque de la pasarela del GR 121 y hacia Santa Katalina.

-029024BMB - Dejamos como está el inventario y recogemos el apunte sobre la existencia de este otro camino.

-029025BMB - ALTA, incorporamos en la ficha del 029025BMB un ramal a Arantzabeko, por sus indicios y los nuevos testimonios que así lo corroboran.

-029026BMB - Reconocemos la existencia de un paso por la parte trasera del caserío Urteaga hacia Salbatore; pero no podemos atribuirle un estatus de camino público. El camino público a Salbatore es el que hemos inventariado como 029053BMB.

-029027BMB, 029030BMB, 029031BMB - Debilidad de indicios. Entendemos que al apeadero y desde el apeadero hubo muchos “atajos” que fueron surgiendo a necesidad propia creándose una suerte de red alternativa a cada caserío o barrio por trazados alternativos y servidumbres oportunas que en ningún caso podemos atribuir hoy la naturaleza de Caminos Públicos.

-029033BMB - Camino de peregrinación. Corresponde al municipio de Zestoa.

-029036BMB - Iruretik-Santuaran, Andusorotik-Santuaran, Usarroatik-Santuaran; ez dago indizio nahikorik.

-029038BMB - El apunte al que hace referencia pudo ser un tramo del viejo camino anterior a la carretera; lo consideramos residual y amortizado por la carretera.

-029041BMB - Sakabiagazar – Goitzibar, no vemos clara esta conexión, se trata de una zona muy abrupta.

-029043BMB - Inbentarioan sartu dugun trazaketa ez da antzinako kartografian agertzen dena. Gaur egun inguru horretan erabiltzen dena da, ibilbide bat jarraitzen duena.


-029048BMB - Reconocemos la existencia de un recorrido pero no podemos atribuirle un estatus de camino público por falta de indicios.

-029053BMB - Debilidad de indicios.

6.- Sarrera: 509. 029006BMB bidea.

Deban gauzatzen ari garen lanaren helburua Landa Bideen Inbentarioa osatzea da, espezifikoki gure lanetik kanpo geratzen direlarik zonalde erresidentzialtako bide eta kaleak, baita zonalde

industrial eta ekipamenduetakoak ere, hauek guztiak Hirigintzako Plan Orokorrean ordenatzen baitira, gure lanaren gainera dagoena, maila goren batean. Hortaz, nahiz eta ia ziurra izan gaur egun Itziargo Poligonoa dena zeharkatzen zuen bidea egon izana, guk ezin dugu inbentariatu poligonoaren barruan.



DEBAko UDALA

7.- Sarrera: 540. Kortaberritik Pagatzara doan bidea 029003BMB.

Alegazio hau ez da onartzen, bide historikoa da nahiz eta zati batzuk ez erabili edo beste zati batzuk alboko jabeek konpondu izan.

8.- Sarrera: 569.

Alegazioa atzera botatzen da.

9.- Sarrera: 577. Santixo baserria (Egia Auzoa).

Onartutako alegazioa.

10.- Sarrera: 586. Asociación de los amigos de los caminos a Santiago.

Alegación estimada en todos sus términos.

11.- Sarrera: 589. -Camino que va desde la cuesta de Aldats-buru hasta el camino de acceso al caserío Santixo.

Alegación desestimada por debilidad de indicios.

12.- Sarrera: 599. - Olaberriko bidea.

Lan honen helburua Debako bideen izapide publikoa determinatzea da. Ez gara sartzen bide konkretu bat egokitu behar den edo ez kontsideratzera. Gai horren eskumena Udaletxeari eta bertako teknikariei dagokie, haiek ezarriko dituztelarik lehentasunak. Hala ere, eskabidea jasoa geratzen da.

13.- Sarrera: 608. - 029032BMB bidea.

Alegazio hau desestimatu dugu, bide hauek antzinako tradiziozkoak direlako eta mendeetan zehar lurraldea egituratu zuten bide publikoen sarea delako. Beraz, bide honen izapide publikoa berresten dugu.

14.- Sarrera: 619. 029011BMB bidea.

Alegación desestimada. La inmensa mayoría de los denominados “Caminos de Servidumbre” de Euskal Herria, a diferencia de Castilla, tienen un carácter público y no privado, es lo que hoy debemos considerar la RED DE CAMINOS PUBLICOS DE EUSKAL HERRIA y otorgarles su merecido estatus para garantizar su permanencia como Bienes de Dominio Público que son por satisfacer una necesidad colectiva y primaria como la movilidad y el acceso al medio natural.



DEBAko UDALA

15.- Sarrera: 635. Irure eta Usarra arteko bidea Santuaren Goikotik.

Alegazioa ez da onartzen ez dagoelako indizio nahikorik.

16.- Sarrera: 636. Elorriagatik San Martin eta Saskarate baserrietako bidea – 029017BMB bidea.

Alegazio hau ez da onartzen, bidea nagusia da eta ez bigarren mailakoa.

17.- Sarrera: 637. Lopertza bidea. 029020BN bidea.

Lan honen helburua Debako bideen izapide publikoa determinatzea da. Behin Inbentarioaren azkenengo onarpena egiten denean, bide konkretu bat itxita aurkitzen bada, inbaditua, erabilpen publikoari usurpatua arrazoi justifikaturik gabe eta udal lizentzia baten faltan, salaketa baten aurrean, Udaletxeak bidearen berreskurapena bideratu beharko du horretarako dauden bide legal eta administratiboetatik, R.B.E.L-en (Reglamento de Bienes de Entidades Locales) jasotzen den bezala.

18.- Sarrera: 638. Itxaspetik Aitzuriaurre baserrira dihoan bidea.

Alegazioa onartzen da eta 029020BMB bidearen adarra moduan inbentarioan sartzen da, badagoelako nahiko indizio.

19.- Sarrera: 639. Arantzagoikoatik Arantzabekora doan bidea. 029018.1BN bidea.

Alegazioa onartzen da eta zati hori 029025BMB bidearen fitxan sartzen da eta 029018.1BN bidearen fitxatik kentzen da.

20.- Sarrera: 640. Artutzanetik Diabolako sakonera dihoan vida. 029006BMB bidea.

Nahiz eta ia ziurra izan gaur egun Itziargo Poligonoa dena zeharkatzen zuen bidea egon izana, guk ezin dugu inbentariatu poligonoaren barruan.

21.- Sarrera: 641. Urberoaga baserrira doan bide adarra. 029017.2BN bidea.

Alegazioa onartzen da eta zati hori 029030BMB bidearen fitxan sartzen da eta 029017.2BN bidearen fitxatik kentzen da.

22.- Sarrera: 642.

- Lizarreta baserria eta Arakistain baserriaren arteko gorpu bidea.

Alegazioa ez da onartzen ez dagoelako indizio nahikorik.

- Arakistain gainetik GI-3210 errepidera doan bidea.

Inbentarioan bide publiko bezala sartzearabaki da 029059BMB kodigoarekin, bere traza originalean, aipatu dokumentaziotik jasotakoa.

23.- Sarrera 643.

-029037BMB bidea

Alegazioa onartzen da badagoelako nahikoa indizio. 029037BMB bidearen fitxan sartzen da.

-Etxaiztik Urreitzarako lotura 029038BMB bidearekin

Alegazioa ez da onartzen ez dagoelako indizio nahikorik.



DEBAko UDALA

24.- Sarrera 644. 029019BMB bidearen jarraipena Itxasburuko kanteraraino.

Alegazioa ez da onartzen ez dagoelako indizio nahikorik.

25.- Sarrera 645. 029032BMB bideak itsasoraino irtenbidea..

Arrazoa dauka baina alegazioa ez da onartzen ulertu dugun bidea Zumaian dagoelako.

26.- Sarrera 646.

Alegazioa onartzen da badagoelako nahikoa indizio eta erabilera publikorako zabalik dagoelako gaur egun. 029058BMB bidea inbentarioan sartzen da.

27.- Sarrera 647. Otakor gainera dihoan bidea. 029074BN bidea.

Lan honen helburua Debako bideen izapide publikoa determinatzea da. Behin Inbentarioaren azkenengo onarpena egiten denean, bide konkretu bat itxita aurkitzen bada, inbaditua, erabilpen publikoari usurpatua arrazoi justifikaturik gabe eta udal lizentzia baten faltan, salaketa baten aurrean, Udaletxeak bidearen berreskurapena bideratu beharko du horretarako dauden bide legal eta administratiboetatik, R.B.E.L-en (Reglamento de Bienes de Entidades Locales) jasotzen den bezala.

28.- Sarrera 660.

-Lizarreta baserria eta Arakistain baserriaren arteko gorpu bidea.

Alegazioa ez da onartzen ez dagoelako indizio nahikorik.

-Arakistain gainetik GI-3210 erreperidera dihoan bidea.

Inbentarioan bide publiko bezala sartzea erabaki da 029059BMB kodigoarekin, bere traza originalean.

29.- Sarrera 661. 029004BMB bidea.

Alegazioa onartzen da. Bide adar honen zati bat ez dago kartografia historikoan eta autopista egiterakoan herri bidaren trazaketa aldatu egin zen. Beraz, horrela zuzentzen da inbentarioan.

30.- Sarrera 667. Izarraitz Bizirik Elkartea.

- 029042BMB bidea - Zelaitxikitik Azkoitirantz doan bidea

Onartzen da alegazio hau eta bide zati hori inbentarioan sartzen da

- 029054BMB bidea - Albizuri baserriaren inguruan

Bere izapide publikoa berresten dugu nahiz eta kontserbazio egoera txarra duen.

- 029049BMB bidea - Aristondo baserrietik beherantz doan bide

Onartzen da alegazio hau eta bide zati hori inbentariotik kentzen da.

- 029002BMB bidea

De momento y sin perjuicio de algún recurso en tal sentido optamos por mantener inventariado el que está reflejado en el plano por su presunción al encontrarse “Abierto al Uso Público”.

- 029003BMB bidea - Kortaberritik Pagatzara doan bidea

Alegazio hau ez da onartzen, bide historikoa da nahiz eta zati batzuk ez erabili edo beste zati batzuk alboko jabeek konpondu izan.



DEBAko UDALA

31.- Sarrera 673.

- 029041BMB eta 029068BN bideak

Alegazioak onartzen dira.

- 029042BMB bidea

Alegazioak onartzen dira.

32.- Sarrera 826.

El inventario de caminos públicos y la alegación son coincidentes en ese punto. Se deberá mantener informado al alegante en caso de que se realicen cambios en ese entorno

6.- Osio guneko plangintzaren inguruko mozioa. Debako EH Bilduk aurkeztua.

Iritziak eta galde erantzunak

Aimar Lasa zinegotziak mozioaren edukia laburbildu du, eta esan du, 2016ko abenduaren 28an ahobatez onartu zela Debako Arau Subsidiaroen aldaketa puntuala, beraiek ados baizeuden hor jasotako planteamendu eta irizpideekin baina ez daudela ados medioetan, eta bereziki, Udaleko web orrialdean informazioari emadako tratamenduarekin. Eskaera da, udal informazioa modu egokian ematea eta web orrialdean agertutakoa, egia ez denez, zuzentzea.

Alkateak erantzun dio Hirigintza batzordean geratu zirela, gaia batzordearen hurrengo saioan aztertzekotan eta horrela egingo dela eta hor edukiko dutela aurkera esaten dutena demostratzeko.

Maiderrekin Zubikarai zinegotziak horren harira esan du, Udalbatzarren erabakia udal arkitekto-aholkulariaren txostenean oinarritu dela eta txosten horrek 2014 urtea hartzen duela erreferentziatzat, ondorioz, ez dela iritzi kontu bat. Gaineratu du, ez dutela eskatzen prentsan agertutakoa zuzentzea baina bai Web orrialdea zuzentzea. Ez du ulertzen hau zertara etorri den eta uste du jendaurreko aurkezpena egin aurretik gaia zuzenduta egon beharko litzatekeela. PNVri galdetu dio gai honen inguruan zein den bere iritzia, gaia serioa baita.

Cristobal del Corte zinegotziak erantzun dio, zalantzak daudela, baina prest daudela argitzeko eta ez duela aztertu dokumentazioa behar bezala jakiteko ados dagoen edo ez.

Aimarrek gogorarazi dio aurreko legegintzaldian ere bera bazela zinegotzia.

Maiderrekin, aurreko Udalbatzarren saio baten esandakoa berretsi du, eta esan du, mozioak lantzeko egokiena dela bozeramaileen batzordea deitzea eta bertan adostea mozioaren testua, baina hori ez dela egin.



DEBAko UDALA

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Bozketa.

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	12
◇ Aurkako botoak:	7
Aurkako boto-emaileak: PEDRO M ^a BENGOTXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, M ^a LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Aldeko botoak:	5
◇ Aldeko boto-emaileak: MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak:	0
◇ Emaitza: MOZIOA EZONARTZEA	

Erabakia.

Mozioaren testuaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak erabakia hartu du goian jasotako gehiengoarekin, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla.

Lehenengo.- EH Bilduk aurkeztutako Osio guneko plangintzaren inguruko mozioa ez onartzea.

7.-Martxoaren 8^a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Adierazpen instituzionala.

Iritziak eta galde erantzunak

Marilu Albizu zinegotziak, Debako bertako egitaratuaren berri eman du eta Berdintasuna batzordearen lanaren eta egitasmoen berri eman du.

Erabakia.

Adierazpen instituzionalaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla:

Lehenengo.- Martxoaren 8aren inguruan ondoko adierazpen instituzionala onartzea:

Udalak, t xosten europarrek gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita



DEBAko UDALA

emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikoetan izan ezik).
2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuena edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.
3. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.
4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren arabera neurri zuzentzaileak ezartzeko.
5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeak eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabeak eskolako programan parte har dezaten ahalbidetzea.
6. Udalerriko emakumeen ahaldundutza eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengoaren taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.
7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.
8. Udaletako berdintasun sailtan eta gainerako udal sailtan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten.

8.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

8	2017/01/24	Eguneko zentroan eta jubilatuen etxean bi forjatu eraikitze lan esleipena	2016SCOU0010
9	2017/01/26	Ezkontza zibila ospatzeko baimena zinegotzi bati ematea	
10	2017/01/31	Debabarreneko udalen eta Lanbide-ren arteko tokiko emplegua sustatzeko hitzarmena gauzatu 5 langileen kontratazioa	



DEBAko UDALA

11	2017/01/31	117/2016 Alkatetza Dekretuaren aurka Zeletak S.L-k ezarritako Berraztertzeko Errekurtsioa Donostiako Auzien 2. Epaitegira helarazteari erreferentzia eginez jardunketa baliogabetzen duen autoa Zeleta S.L-ri helaraztea	2006URLA0013
12	2017/02/02	Udal Erroldan baja ematea	
13	2017/02/02	Lizentziarik gabeko edo dagozkion zehaztapenei egokitu gabeko Hirigintzako Obren Berriztapena	2016UROM0007 2017URES0002
14	2017/02/10	Administrazioarekiko auzi-helegitean Debako Udaleko ordezkaria izendatzea	
15	2017/02/20	Elizako kanpaia konpontzeko lanak esleitzea	2017SCOU0001

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

9.- Eskariak eta galderak.

Alkateak esan du, otsailaren 21ean Toki Entitate Txikiarekin bilera deituta zegoela, ez zela Entitateetik inor agertu bilerara eta ez zutela abisatu ere egin. Gai zerrenda bidali zenean esan zuten ez zirela etorriko 2. puntua lurraldetasuna zelako. Hitzarmenaren lanketa momentu honetan geldirik dago eta aurrera-pausorik ez badago berari buruzko erabaki bat hartuko da. Gaur bertan Entitatearen gutun bat jaso da zeinetan galdetzen zaion Udalari zein fasetan dagoen Entitatea. Alkateak esan du, gai hori lantzeko bilera deia egingo diela Udal alderdi guztiei.

Itziar Irizar zinegotziak esan du deialdia jasota Entitatean eta 2. puntua lurraldetasunarena zela ikusita, Zigorrek jakinarazi ziola Udalari puntu hori egonez gero ez zirela joango bilera, hitzarmena lantzeko bilera ez baita tokia gai hori lantzeko.

Pedrok dio erantzun ziola Zigorri eta orduz geroztik Zigorrek ez duela ez erantzun eta ez deitu.

Itziar Irizarrek faseen inguruan azpimarratu du, fase bat bada bere osotasunean dela fase hori eta ez zati batean.

Iñaki Esnaolak esan du, berak beti ulertu izan duela 1º urtea 2016 zela, nahiz eta Dekretua 2015ekoa izan.

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, Dekretuan jasotzen dela hitzarmena egon behar dela eta lurraldetasunarena beste kontu bat dela. Bere ustez, logikak agintzen duela eskumenak eskuratzen diren neurrian aurrekontua egokitu behar dela eta elkarrekin doazela kontzeptu biak. Ez du normala ikusten Entitateak ez jakitea zein fasetan dauden.

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du zaharren egoitzako eta eguneko zentroko tabernaren ustiapen-kontratuaren esleipenaren inguruan.

Erantzun zaio dokumentazio gehigarria eskatuko zaiela hiru lizitatzailerei esleipena egin ahal izateko eta posible izanez gero martxo bukaerarako esleituta egongo dela.

Aimar Lasa zinegotziak esan du Udal aurrekontuaren aurkezpena egingo duela Debarren Ahotsak, baina aberatsagoa izango litzatekeela Udalaren izenean jendaurreko azalpena egitea eta ez alderdi baten izenean. Uste du, Udala, erakunde bat den neurrian formak zaindu beharko litzuzkeela eta



DEBAko UDALA

deigarria suertatu zaio Udalak Osioko plana jendaurrean azaltzeko erabili duen panel eta toki bera erabi izana Debarren-Ahotsa alderdiak aurrekontuen azalpenaren deialdia egiteko. Bere alderdiak bilera deitu zuen baina mailez egin zuen.

Pedrok dio Udalaren tresnak eta baliabideak denontzat egoten ohi direla eskuragarri.

Maiderek galdetu du beraiek beraien proposamenak egin ondoren, zein jardunbide jarraituko den aurrekontuak onartu aurretik eta beraien proposamenak aintzat hartuko diren.

Iñaki Esnaolak erantzun dio, TETaren aurrekontu proposamenaren zain daudela eta jasotakoan batzordean landuko direla aurrekontuak baina EHBilduren proposamenak ez direla landuko.

Maiderek erantzun dio, hori atzera pausu bat iruditzen zaiola beti egin izan baita alderdi bilera.

Mariluk esan du, ez duela ulertzen zein eragin eduki dezakeen prozeduran Debarren Ahotsak jendaurreko aurkezpena egitea. Gaineratu du, aurrekontuen onarpena asko luzatzen dela eta aztertu egin beharko litzatekeela nola egin tramitazioa arinagoa izateko, izan ere, aurrekontuak onartuta ez edukitzerakoan gai asko mahai gainean geratzen dira.

Maiderek erantzun dio, aurrekontuena beti izan dela gai "potente" bat, eta Udal Gobernuaren lana dela erabakitzea horiek nola landu.

Bestetik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2017ko otsailaren 23a

IDAZKARIA



